




Patxik gogoan zuen «Banbi» ipuinaren pasartea. Zein gogoko zuen ipuin hura! Buruz zekien arren, behin eta berriz entzutea gustatzen zitzaion.

–Aitona, kontatu berriro mofetaren istorioa.

Mofetek begi txiki-txikiak dituzte, belarri ñimiñoak, eta bosna atzapar esku eta hanketan.

Atzaparretan erpe gogorak dituzte eta, defendatzeko, kiratsa darion likido bat botatzen dute isats azpitik. Marra zuri bat izan ohi dute bizkarrean, burutik hasi eta isats luzearen puntaraino heltzen zaiena. Mofeten ilaje beltza oso preziatua da.

Mofetak oso xelebreak iruditzen zitzaizkion Patxiri.

Aitona istorioa kontatzen hasi zen:

«Eguna argitu bezain laster, eguzkiaren lehen izpiak sumatu orduko, Danbor Banbiren bila joan zen. Banbi gaixoa tente jartzen saiatzen ari zen.

–Bai baldarra! –iseka egin zion Danborrek. Baina, azkenean, tente jartzea lortu zuela ikusita, txaloka hasi zen–. Aupa, Banbi, jarraitu niri. Basoa erakutsiko dizut. Hara! Txoria duzu hori.

–Txo... trotx... txoria –ahoskatu zuen Banbik.

–Oso ondo! –esan zuen untxiak–. Zure lehen hitza esan duzu.

Banbik lore batzuk usnatu zituen eta Danborri begiratu zion.

–Loreak dira –esan zuen Danborrek–. L-O-R-E-A.

–Lorea! –errepikatu zuen Banbik. Orduan, mofeta baten buru beltza agertu zen loreen artean.

Danbor barrez itota zebilen, belarretan itzulipurdika. Hura marka, hura! Lore usaintsuen artean mofeta kirasduna azaltzea ere!».

1. Zer istorio entzun nahi zuen Patxik?

.....

2. Nolakoak dira mofeten begiak eta belarriak?

.....

.....

3. Nolako usaina dute mofetek?

.....

4. Aukeratu egia direnak.

- ☐ Mofetek marra zuri bat izan ohi dute.
- ☐ Defendatzeko, mofetek kiratsa darion likido bat botatzen dute.
- ☐ Mofeten isatsa ez da ia ikusten.


5. Nolakoa da mofeten isatsa?

.....

.....

6. Noiz argitzen du eguna?

- ☐ Egunsentian.
- ☐ Eguerdian.
- ☐ Ilunabarrean.



7. Zer erakutsi nahi zion Danborrek Banbiri?

8. Zein izan zen Banbik ahoskatu zuen lehen hitza?

9. Non zegoen ezkutaturik mofeta?

10. Zein izan zen Banbik ahoskatu zuen bigarren hitza?

